

**ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI  
ERANTZUTEN PLAN ESTRATEGIKOA 2011-15 (Zirriborroa)**

**STEE-EILASen IRAKURKETA KRITIKOA  
eta EKARPENAK**

**1. PLAN ESTRATEGIKOAREN IRAKURKETA KRITIKOA**

- 1.1. Eskola inklusiboa? Bai, noski
- 1.2. Hasierako zalantza batzuk zirriborro honen aurrean
- 1.3. Plan estrategiko honen gabeziak

**2. STEE-EILASen PROPOSAMENAK**

- 2.1. STEE-EILASen proposamena: Ikastetxeak, inklusioaren ardatza
- 2.2. STEE-EILASen proposamena: Ghettorik ez hezkuntzan
- 2.3. STEE-EILASen proposamena: Baliabideei buruzko gogoeta garbia

**STEE-EILAS,  
2011ko azaroa**

# 1. PLAN ESTRATEGIKOAREN IRAKURKETA KRITIKOA

## 1.1. Eskola inklusiboa? Bai, noski

1.1.1. Lehenik eta behin, STEE-EILASek eskertzen du eskola inklusiboaren inguruko gogoeta proposatu izana, uste baitugu hau dela eskolaren erronka garrantzitsuenetako bat. Guztiontzako zabalik dagoen jendartearen aldeko apustuan, **eskola inklusiboa funtsezkoa da**, kohesio soziala lantzeko eta inor bazterrean ez uzteko. Honelako eztabaidak denbora gehiagorekin ikastetxeetara ere zabaldu beharko lirateke, hainbat erakunderena ez ezik eskoletako langileon iritzia ere aintzat hartzeko.

1.1.2. Bestalde, ikasleen aniztasunak aberastu egiten du gure eskola, eta guztioi elkarbizitzan eta ezagutzan hezteko eta ikasteko aukera ematen digu. Aberaste hau ez da berez gertatzen: **aniztasunaren ekarpena era egokian bideratzeko eskolek hezkuntza-estrategia eta bitarteko egokiak behar dituzte**.

1.1.3. STEE-EILASentzat **inklusioa lehenestea eskolaren kalitate adierazle funtsezkoa da**, zalantzarik gabe; bat gatoz, gainera, inklusioa eskola osoaren ardura gisa hartzean, ikasle guztiei ahalik eta hezkuntzarik osoena eta aberatsena eskaintzeko.

1.1.4. Hala ere, erakunde publikoek ez diote ematen hezkuntzari beharko lukeen lehenetsuneko trataera; izan ere, Barne Produktu Gordinarekiko hezkuntza gastuaren portzentajeak gurean OCDEren maila ertainaren azpitik dirau. EAEko irakaskuntza publikoaz aritzen bagara, azken urteotan, gainera, **murrizketak** ezarri dira plantilletan, bikoizketetan, ordezkapenetan eta abarretan. Eta honek guztiak isla zuzena du eskoletako eguneroko lanean, askotan adierazi dugun moduan, baliabide nahikorik ez baitaukagu ditugun erronka handiei behar bezala erantzuteko. Normalean ahulena dira gabeziaren ondorioz latzenak jasaten dituztenak; eskolan, beste esparruetan bezala, hala gertatu ohi da. **Testuinguru hau ezin dugu ahaztu** honelako plan bat aztertzeari ekiten diogunean.

## 1.2. Hasierako zalantza batzuk zirriborro honen aurrean

1.2.1. Honelako Plan Estrategiko batean helburuak aurrera eramateko erabiliko diren **baliabideak eta bitartekoak aintzat hartu** beharko lirateke. Harrigarri samarra da honetaz tutik ere ez esatea. Zeintzuk dira baliabideak irakaskuntza publikoan plan hau aurrera eramateko? Baliabide gehiago ekarriko ditu planak? Non eta zertarako? Edo baliabide gutxiagorekin moldatzeko gida dugu dokumentu hau?

1.2.2. Kezka areagotzen zaigu egunotan EAEko aurrekontuen egitasmoa ezagutzean. Hezkuntza aurrekontuak murrizten direla jakin dugu, nahiz eta 2011-2012an ikasle kopurua nabarmen handitu den; irakaskuntza publikoan murrizketak daude, adibidez, hezkuntza premia berezietan eta hezkuntza indartzeko baliabideetan. **Nola uztartzen da murrizketa** hau inklusioari buruz aurkezten den plan estrategikoarekin?

1.2.3. Plan estrategikoan, 6. helburuari dagokion atalean, aipatzen da erreferentzia-parametro berriak egongo direla baliabideak esleitzeko. Zeintzuk dira erreferentzia-parametro berri horiek? Ez da honetaz ezer zehaztu. Gainera, aipatzen da helburu bezala (6.2.) erreferentzia-parametro berrien arabera irizpideak ezartzea baliabideen banaketa zehazteko, EAE osoan. Inklusibitatea lantzeko baliabideak zeintzuk diren lehenbailehen argitu beharreko kontua da hau, Plan Estrategikoa zein baldintzatan ezarriko den jakiteko eta beronek sinesgarritasuna izan dezan.

### 1.3. Plan estrategiko honen gabeziak

1.3.1. **Bat gatoz** planaren zirriborroan proposatzen diren **neurri askorekin**, hobekuntza ekar baitezakete aniztasunaren trataeran: kultura, politika eta praktika inklusiboak sustatzea, inklusio-irizpideak har ditzaten ikastetxeak bultzatzea, ezagutza, ikerketa eta ebaluazio pedagogikoa eskura jartzea, familiak eta lekuan lekuko komunitatea hurbilak inplikatzera... Proposamen hauetako askotan gauzak hobetuko lituzketen ideiak daude; horregatik, aintzat hartzen ditugu proposatzen diren egitasmoak.

1.3.2. Hala ere, **gabezia larriak ikusten ditugu** eskola inklusiboari buruzko plan estrategiko honetan. Gabezia horien artean hiru hauek iruditzen zaizkigu garrantzitsuen:

- **Ikastetxeen eguneroko errealitate** bertatik egin beharreko analisiak, diagnostikoak eta proposamenek ardatza izan behar dute eskola inklusiboaren edozein planteamendutan, eta, gure ustez, ikuspegi hau ez da lehentasun nahikoz jasotzen plan estrategikoan.
- Ghetto ez badira **ghetto izatetik oso gertu dauden eskolen errealitatea** jaso behar da EAEan inklusioari buruzko edozein plan batean. Aspalditik ari gara esaten neurri batzuk hartu behar direla hainbat eskolatako errealitatearen aurrean. Gaia zabalagoa da, baina erlazioa ere badu etorkin jatorriko ikasleen eskolatzearekin.
- Inklusioa ahalbideratu ditzaketen **eskola-antolaketa eta baliabideen esleipena ezin dira eztabaidatik at utzi**. Izan ere, irakaskuntza publikoan irakasleen gaineko zama gero eta handiagoa da, eta, aldiz, ikastetxeei esleitzen zaizkien baliabideak, urriagoak. Eskoletan inklusio-estrategiak garatzeak gogoeta, prestakuntza, koordinazioa, esfortzua eta denbora eskatzen du, eta hori aintzat hartu beharreko errealitatea da plan estrategikoa benetan garatu nahi bada.

Gabezia hauen ildotik doaz STEE-EILASen proposamenak.

## 2. STEE-EILASen PROPOSAMENAK

### 2.1. STEE-EILASen proposamena: Ikastetxeak, inklusioaren ardatza

2.1.1. Plan estrategikoa birpasatzen badugu, ikusten dugu honako analisiak edota azterketak proposatzen direla: hezkuntza sistemaren maila eta etapak (1.1.), indarrean dagoen araudia (1.2.), Hezkuntza Bereziko ikastetxeei buruzko txostena (2.6.), adituen batzordeak (4.1.), ikastetxeen giza-baliabideak aztertzea (6.1.), lanpostuen irizpideak (6.1.), irisgarritasunaren mapa (6.1.), Berritzeguneen antolaketa (6.4.). Inon ez da aipatzen inklusioaren arloan **ikastetxe bakoitzaren egoera eta beharrak aztertu** beharko direnik. Honek alarma guztiak piztu beharko lizkiguke: zertaz ari gara plan honetan? Ikastetxeetan hezkuntza inklusiboa bultzatzea helburua bada, ikastetxe bakoitzaren barne gogoeta da esanguratsuen, inklusibitatea ikastetxe eta irakasle guztion esku-hartzearen ezinbesteko lan-ardatza izan dadin, ikasleen aniztasunari derrigor lotuta. Ikasleen aniztasunaren trataera orokorraren barruan, inklusibitatea abiapuntu filosofiko, ideologiko eta, batez ere, metodologiko eta kurrikularra izatea da erronka ikastetxe bakoitzean .

2.1.2. Kontua beste era batean adieraziz: eskoletan lanean daudenen ahotsa entzun eta aintzat hartu behar da. Ikastetxeetako eguneroko errealitatea hobetzea asmoa baldin bada, **egunero eskoletan aritzen direnei entzun beharko zaie**, ikusten dituzten arazoak, aukerak, beharrak ezagutzeko. Plan estrategikoan, tamalez, ez da jasotzen inolako estrategiarik ikastetxeak eta bertako langileak aintzat hartzeko.

2.1.3. Gure ustez, Berritzeguneei eta Ikuskaritza zerbitzuei ikastetxeetara laguntzeko daude batik-bat, eta are gehiago inklusibitatea bezalako gai batean. Ikastetxeak hobetzeko bidean lagundu behar dute, eta horretarako ikastetxearekin berarekin lan egin behar da. Administrazioak antolatzen dituen prozeduretan **ardatza ikastetxeen eguneroko jardunean jarriko balira**, seguru gaude emaitza hobekiak lortuko genituzkeela, bai hobekuntza didaktikoan, bai hezkuntzaren berriztatzean.

2.1.4. Plan Estrategikoaren helburuetarako adierazleak aztertuta, **zuzenean ikasleekiko lanean** eragiten dutenak 2. ekintza estrategikoetan agertzen zaizkigu, eta batez ere 2.3. helburuak:

2.3. helburua.- Ikasgelan malgutzeko estrategiak erabiltzea curriculumak garatzeko, ikasleek oinarriko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko eta ikasitakoa ebaluatzeko.

Ekintzak:	Adierazleak:
Ikasgelako egitasmoak eta jarduerak aztertzea, ikuspegi inklusiboa kontuan hartuta.	Ikasgeletan hautemandako jardunbide egokien zerrenda egin da. Jardunbide horiek metodologiarekin, ikasgelako antolamendu malguarekin eta ikasle guztiek egin ditzaketan ebaluazioekin zerikusia dute.
Metodologiak eta ikasgelako antolaketa malgutzeko, autonomia eta elkarlana bultzatzeko.	
Ebaluazioak eta ebaluazioak egiteko modua ikasleentzako ezaugarrietara egokitzeko.	

Gure ustez, planaren atal honetan datza inklusioaren giltzetako bat eta horregatik izan beharko luke lehentasunezko trataeran. Gainontzeko ekintza eta helburu asko honen menpean jartzea beharrezkoa litzateke, **ikasleengana heldu** nahi bada, behintzat. Izan ere, gauza eder ugari egin ditzakegu, dokumentu mila sortu, bilerak antolatu, gure ikasgeletako errealitatean aldaketa esanguratsurik eragin gabe; hau ez litzateke gertatu behar.

## 2.2. STEE-EILASen proposamena: Ghettorik ez hezkuntzan

2.2.1. Gure eskola sistema ezagutzen duen edonork badaki hainbat eskola ghetto izateak oso gertu daudela, hala ez bada behintzat. Gure eskola batzuk indize sozio-kultural oso baxu izateagatik nabarmentzen dira, gehien bat ikastetxe publikoen artean. Eta horien artean askok etorkin jatorriko ikasle kopuru oso altua dute. Hainbat lekutan gertatzen da etorkinez betetako eskola dagoela eta, metro gutxira, etorkinen presentzia erabat anekdotikoa den beste eskola bat. Gure ikastetxe askotan ikasle banaketak auzoko egoerarekin ez ezik hizkuntza ereduarekin edota pribatu-publiko izaerarekin du erlazio zuzena. **Eskola inklusiboari buruzko plan batek ezin du ez ikusiarena egin ghettitazio prozesuaren aurrean**. Horregatik aintzat hartzea eskatzen dugu. Urte askotako kontua da hau, eta arazoak ez dira berez konpondu; ghettitazioa garatzen joan da administrazio desberdinen itxurazko axolagabekeriarekin. Bada ordua neurri eraginkorrak hartzeko.

2.2.2. Lehenik eta behin, honelako plan batek **ekin beharko lioke ikasleen banaketarekin**. Diru publikoz hornitutako ikastetxe guztien planifikazioak integrazioa bilatu behar du, eta ez segregazioa jatorriz edota maila ekonomikoz. Gogoeta beharrezkoa da, eta administrazioaren arduradunen interbentzioa derrigorrezkoa.

2.2.3. Hizkuntza ereduen arabera sailkapenak ere erraztu du segregazioa. Izan ere, irakaskuntza publikoaren A ereduaren sortzen dira eskola-ghetto gehienak, era nabarmenean ISEK indize baxuen dutenak. Bi hizkuntza ofizial eta bereziki euskararen ezagutza integrazioarako tresna eraginkorra delakoan gaude. Ez zaigu onargarria iruditzen euskal jatorriko ikasle gehien gehienak eredu euskaldunetan eskolatzea eta kanpoko gehienak A eredura bideratzea. Ikasleak hizkuntzaren arabera horrela bereiztea segregazio onartezina da. **Euskarak kohesio sozialerako eta integrazioerako** eskaintzen dituen aukera aberatsak aprobeitzatzeko estrategiak garatu behar dira, eta ikuspegi honetatik hizkuntza ereduari buruzko gogoeta nahitaezkoa da. Katalunian eginiko bidean zer ikasi badugula iruditzen zaigu<sup>1</sup>.

2.2.4. Hezkuntza **sistemara berandu sartzen diren ikasleen eskolatzeari** ere badago zer pentsa eta zer erabaki. Izan ere, ikasle horien harrera eta bideratzea funtsezkoa da inklusiorako. Askotan ikusten dugu A ereduko eskola publikoetara bideratzen direla gehienbat, bereziki Bizkaian eta Araban, ghattizazioa areagotuz. Hezkuntza administrazioak esku hartze zuzena du eskolatzeari berantiarren kasuan. Irizpideetan eta praktiketan azterketa egin behar da segregazio egoerak ez bultzatzeko. Gainera, integrazio-estrategietan eta hizkuntzen irakaspenean etengabeko hobekuntzara begira baliabideak eta bitartekoak lehenetsi beharko lirateke.

### 2.3. STEE-EILASen proposamena: Baliabideei buruzko gogoeta garbia

2.3.1. Aurkeztu den Plan Estrategikoetako **neurri askok esfortzua eskatzen diete ikastetxeetako langileei**. Bereziki 2. helburu nagusian (*Ikastetxeak bultzatzea inklusio-irizpideak kontuan har ditzaten hezkuntza- eta curriculum-proiektuak egitean eta ikasgelako jardueren plangintza egitean; izan ere, hori egiten badute, aldaketaren eragileak bilakatuko dira*) zehazten dira lan batzuk, ganoraz hartuta, lan karga esanguratsua suposatzen dutenak.

2.3.2. Baina azken urteotan **irakasle lan-karga handituz joan da**, baliabideak murrizten diren bitartean: kreditu-orduen murrizketa, plantillen estutzea, eskola 2.0ren ezarpen hau, talde bikoizketarako irizpide murriztaileak, ordezkapen askoz gehiago bete beharra... Eskola batzuetan Agenda 21, bizikidetzaren edo beste eskolako proiektuak ahuldu edo bertan behera geratu dira azken ikasturte hauetan. Hau da testuingurua: plan estrategiko honek zer ekartzen du? Berrito lan-karga handitzea baliabideak murrizten diren bitartean?

---

1 Josep M. Cervelló, Kataluniako USTEC-STE s-eko sindikatukidea, katalanaren eztabaidaz:

*Katalanak kohesio soziala eta elkarbizitza bultzatu behar ditu. Ikasle guztiek aukera berberak izan behar dituzte, hizkuntzagatik inor bereizi gabe. 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 1980koaren hasieran eztabaida handia izan zen, ea ikasleen ama hizkuntza bermatu behar genuen ala ohiko hizkuntzatat katalana hartu behar zen. Gogoan izan 1960-70eko hamarkadetan milioi bat andaluziar eta extremaduratar etorri zirela gurera. Kontua ez zen hizkuntza salbatzea, hori ere bai, baina batik batik hizkuntza etorri berriekin elkarbanatzea zen. Ikastetxeetan ez ziren bi lerro sortu, Herrialde Valentziarrean bezala. Eskola segregatua egin izan bazen batasun soziala apurtzeko arriskua zegoen, lurralde berean bi herri egongo ziratekeen.* Argia aldizkaria, 2011-10-02

2.3.3. Ikastetxeen eta ikasleen errealitateak, **eskola inklusiboa garatzeko beharreko neurriak bitarteko nahikoz hornitu behar dira**. Guk, hasteko, honakoak azpimarratzen ditugu hemen:

- Plantilla dotazio nahikoa behar guztietan erantzun egokia emateko
- Irakasleon zein hezkuntza laguntzaileon ordutegietan orduak bermatzea beharreko koordinazioa burutzeko, ikasleen inklusioari begira: gogoeta partekatua, prestakuntza eguneroko jardunari lotua, ekintzen planifikazioa eta ebaluazioa, profesionalen arteko elkarlana...
- Beharren arabera, gizarte-laneko profesionalen esleipena aztertzea eta eskolaren inguruko gizarte zerbitzuekiko koordinazioa eta elkarlana sustatzeko baliabideak bermatu ikastetxeei.
- Zuzendaritzarako ordu kredituetan onartu bazterketa egoeran egon daitezkeen ikasleekiko lana, hauen kopuruaren arabera

2.3.4. Zentzu honetan, **gure kezka adierazi behar dugu Planarekin, bereziki 6. helburuak diogenekin:**

*Hezkuntza-sistemaren maila guztietan, ikasleei ematen zaien laguntza beste modu batera antolatzea eta kudeatzea; eskola inklusiboaren printzipioak kontuan hartuta, hain zuzen.*

Ez gaude, printzipioz, esaten denaren aurka, beharrezkoa iruditzen baitzaigu laguntzen inguruko gogoeta egitea eta antolaketa hobetzea, are gehiago eskola inklusiboaren ildoan lan egiteko. Tamalez, **susmoa dugu murrizketak daudela honen guztiaren atzean**, administrazio honen joera hori ari baita izaten; gainera, 2012rako aurrekontuen proposamena erabat argigarria da. 6.2. atalean baliabideak esleitzeko guk ezagutzen ez ditugun *erreferentzia parametro berriak* aipatzen dira, baliabideak esleitzeko erabiliko direnak. Ez dirudi, haatik, parametro horien arabera inklusiorako dotazioak indartuko direnik.

2.3.5. STEE-EILAS prest dago inklusioari buruzko estrategiak eta neurriak luze eztabaidatzeko alor honetan hobekuntzak bultzatzeko. Argi egon dadila, edozein kasutan, **eskola inklusiboaren arloan ez dugula inola ere babestuko balizko plan estrategikorik ikastetxeei esleitzen zaizkien baliabideetan murrizketa badakar.**

2.3.6 Hau guztia dela eta, STEE-EILASen ustez, aniztasuna era egokian bideratu eta eskola inklusiboa eraikitzen joan gaitezen beharrezkoak diren baliabideak bermatze aldera, **Plan Estrategiko honek berariazko isla izan beharko luke 2012rako aurrekontuetan, baita hurrengo urteetan ere**, hitzetatik ekintzetara pasa eta eraginkorra izango bada.

STEE-EILAS, 2011ko azaroan